

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Udal Aurrekontu Orokorra 2022. Hasierako onarpena**

Udalaren Osoko Bilkurak, 2021eko abenduaren 28an egin duen ohiko ekitaldian, hasierako onarpena eman die 2022ko ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorrari eta aurrekontua osatzen duen gainerako dokumentazioari.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeek aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15.1 artikulua xedatu duenak ondoreak izan ditzaiz, jende guztiari jakinarazten zaio udal erakunde honen kontu-hartzailetza sailean espedientea hamabost egunez egongo dela jendaurrean azalduta; egun horietan, arestian aipatu den Foru Arau horren 17.1. artikulua ezarri duenez, legebideztaturik dauden interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, artikulua horretako 2. zenbakian zerrendaturik dauden zioengatik doi-doi, ondorengo tramite hauei lotuz:

- a) Azalpenerako eta erreklamazioak onartzeko epea: iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbait beharrek hamabost egun baliodun.
- b) Erreklamazioak aurkezteko organoa: Udaleko Erregistro Orokorra.
- c) Erreklamazioak egiten zaizkion organoa: Udalaren Osoko Bilkura.

Baldin eta, jendaurreko azalpenerako epea amaitutakoan, erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onetsitatzat joko da.

Derion, 2021eko abenduaren 29an. — Alkatea